



EUKALIPTO LANDAKETEI BURUZKO MOZIO PROPOSAMENA

JUSTIFIKAZIOA

2017ko abenduaren 1ean Espainiako Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoaren Batzorde Zientifikoak jaulkitako txosten batean, Eucalyptus zuhaitzaren bariedade guztiei “izaera inbaditzailea” adierazita, aho batez gomendatu zuten “baso-ustiapenerakoak diren eukalipto espezie guztiak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan biltzea, espezie horiek arrisku handia dakartelako, euren ezaugarri biologiko, fisiologiko eta ekologikoen ondorioz”. Honekin batera gure lurraldean eta Ekonomia osoan sortuko lukeen eragina azpimarratzen da.

Gure agintariek ez dituzte oraindik adituen gomendioak kontutan hartu eta espezie exotiko inbaditzaileen zerrendaren eguneratzearen zain jarraitzen dugu.

Zaldibian azken bi-hiru urteetan, Pinus insignisaren gaixotasunak direla medio zuhaitz landaketa eremu zabalak mozten ari dira epe motzean, horrek ingurumenean dakarren ondorio kaltegarriekin. Hori gutxi balitz, Pinus insignis ordezkatzeko proposatzen diren espezien artean Eucalyptus globulus eta Eucalyptus nitens agertzen dira.

Aurreko guztia kontuan izanik, honako hau eskatzen dugu:

1. Zaldibiako Udalak, Eukaliptoak, eta lurarentzat eta bioaniztasunarentzat kaltegarriak diren gainontzeko espezie guztien landaketak saihesteko, bere esku dagoen guztia egiteko konpromezua hartzea.
2. Kontuan izanik Euskadiko basoetan eta baso-lurretan Eukaliptoak duen presentziak lur hauen bioaniztasuna, produktibitatea, birsortzeko ahalmena, bizitasuna eta gaur egun eta etorkizunean izan behar dituen gizarte eta funtzio ekologikoak kolonkan ipintzen dituela, Zaldibiako Udalak, Eusko Jaurlaritzari Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa eratzeko eta Eucalyptus bariedade desberdinak katalogo honetan jasotzeko administrazio-prozedurak berehala ireki ditzala eskatzea.
3. Zaldibiako Udalak, Foru Aldundiari baso-politikak alda ditzala eskatzea; gure lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez daitezen, eta gaur egun mendietan dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifika dezaten.

Zaldibiako EH BILDUren udal-taldea